

ALDAKETAREN UDALA  
EH BILDU ETA HAIZE MOREAREN ARTEKO GOBERNU AKORDIOA

EH Bildu eta Haize Morea talde politikoek Erroibarko biztanleriak emandako mandatuari erantzunez zuzentzen gara bailara honetako kide guztiengana.

Lehenik eta behin eskerrak ematea hauteskunde hauetan bozka eman duzuen pertsona guztiei eta bereziki gugan konfiantza jarri duzuen horiei.

Maiatzeko udal hauteskundearen emaitzen argazkiak agerian utzi du gure bailara anitza dela eta azken 20 urteetako ibilbidea aldatu beharra dagoela. Mezu argia helarazi diguzue, eta erantzukizunez, gogoz eta ilusioz erantzungo diogu.

Haize Morea eta EH Bildu izaera eta ibilbide ezberdinak dituzten bi indarrak gara, eta, aldi berean, ibilbide bateragarri eta osagarriekin; eta ezberdintasunetatik abiatuta, gure onena jarriko dugu mahai gainean, gure bailarako proiektu politiko berri bat abian jartzeko. Aniztasunaren balioa aprobetxatu nahi dugu tokiko politika egiteko beste eredu bat praktikan jartzeko.

Ez gatoz udalera orain artekoa mantentzeko beste aurpegi batzuekin. Are gehiago, gure siglak bigarren maila batean utzi eta gobernagarritasuna eta egonkortasuna bideragarria egiteko apustua egiten dugu. Hau horrela izanik, gobernu akordio bat adosteko gai izan gara, kuriositate gehiago jarritz ideietan pertsona edo sigletan baino. Beraz, ideiak batu gaituzte aldaketa egiteko.

Siglak bigarren mailan utzita, gobernagarritasuna eta egonkortasuna bideragarria egiteko apustua egiten dugu. Gobernu-akordio bat adostu dugu, ideietan pertsonetan edo sigletan baino jakin-min handiagoa jarritz; herritarrek hautestontzietan agerian utzi duten aldaketa gauzatzeko ideiek batu gaituzte.

Akordio hau bi zutabetan oinarritzen da: indarren arteko gobernantza partekatuan batetik eta akordio programatikoa bestetik.

Lehenengoari dagokionean lehenetsi duguna egonkortasuna bermatzea izan da. Hau horrela izanik, alkatesaren irudia bien arteko zerrenda bozkatuenak hartuko du. Hau da, Leire Remiro izango da Erroibarko alkatesa.

Ordea, udal politikak aldatzera gatozen honetan ez dugu pertsonalismoetan sinisten eta talde lana izango da oinarrizko zutabea. Zentzu horretan Nekane Nuño alkatesaren ondokoa izango da eta bi pertsona hauek izango dira aldatetaren irudia.

Noski ez dira bakarrik egongo lan honetan eta bi indar politiko hauetako oinarria bide horretan kokatzen da ere. Are gehiago, gure asmoa Erroibarko biztanleria politikara hurbiltzea da bozkatu duzuen alderdiaren izenetik haratago. Denak gara Erroibarko biztanleak eta denon artean marratzuko dugu bailara honen etorkizuna.

Oso kontutan dugu ere AIVE izan dela zerrenda bozkatuena eta errespetu osoz jardun nahi dugu indar politiko honen aldeko hautua egin duten herritar zein hautetsiekiko. Helburua agenda komuna eta lan-kultura partekatua sortzea da, koherentea den antolaketa arrazionala sortuz.

Udal inklusiboa nahi dugu, eta benetan uste dugu korporazioa osatzen duten ordezkari guztien parte-hartze aktiboa onuragarria izango dela bailara garatzeko. Parte hartzeko ateak zabalik daude.

Bigarrena, baina ez horregatik garrantzi gutxiago duena, Akordio Programatikoa da. Ez dugu elkarlana ulertzen edukiz beteta ez badago. Lehen urratsak eman ditugu norabide honetan, gure programetan jasotzen genituen baterajotzeak uztartuz eta datozen lau urteetarako lehentasunak eta helburuak definituz. Edukiei dagokienez, ibilbide partekatu baterako oinarriak ezarri ditugu.

- Udal hurbil, eraginkor eta parte-hartzaile izate alderarantz urrats praktikoak emango dituen prozesua bultzatzea.
- Bailarako kontzejuekin lankidetzaren harremana ezartzea.
- Pirinioetako Mahaiko kide izatea.
- Genero-ikuspegia zeharka txertatzea gure administrazio-politika, programa eta ekintza guztietan.
- Gure bailaran eta udalean euskara hizkuntza bizi gisa erabiltzeko benetako normalizaziorantz aurrera egiteko beharrezko prozesuei heltzea.
- Politikaren erdigunera pertsonen bizitza ekartzea.
- Gure bailararako plan estrategiko bat egitea, hainbat arlo jorratuko dituenak: turismoa, lehen sektorea, azpiegiturak, etxebizitza, landa-garapen iraunkorra eta ondarea.

Norabidea argia da, orain bidea egiten hastea dagokigu. Arlo honetan ere zuekin izan nahi dugu, hainbat proiektu eta proposamenen aurrean parte hartzeko formulak aztertuz eta abian jarritz.

Aurrean dugun bide interesgarri honi gogoz eta ilusioz heltzen diogu. Lehen urratsa udalaren egungo egoera sakonki aztertzea eta honen erradiografia bat egitea izango da. Abiapuntua finkatu beharra dago bidea egiten hasteko. Udalaren barne egoera zein den argi jakin behar dugu urrats berriak eman ahal izateko.

Hau eginda, bi indarren artean adostutako helburuak iparrorantz hartuta urrats ausart eta sendoak eman nahi ditugu. Bidea ez da erraza izango eta era askotariko oztopoak topatuko ditugula badakigu. Zuen konfiantza eta parte-hartzea dugu.

Azkenik, esatea konpromisoa hartzen dugula gure onena emateko eta bailararen garapena berdintasunean, ekitatean eta justizian zentratzeko lan egingen dugula. Udaletxeko ateak zabalik daude guztion artean, elkarrekin, bide hau egiteko!

## AYUNTAMIENTO DEL CAMBIO ACUERDO DE GOBIERNO ENTRE HAIZE MOREA Y EH BILDU

Los grupos políticos EhBildu y Haize Morea nos dirigimos a la población del Valle en respuesta al encargo recibido en las pasadas elecciones municipales.

Agradecer en primer lugar a todas las personas que habéis votado y especialmente a aquellas que habéis depositado vuestra confianza en nuestros grupos.

La fotografía de los resultados de las elecciones municipales de mayo ha puesto de manifiesto el carácter plural de nuestro valle y la necesidad de introducir un cambio en la trayectoria de los últimos 20 años. Nos habéis transmitido un mensaje claro, al que vamos a responder con responsabilidad, ganas e ilusión.

Haize Morea y EhBildu somos dos fuerzas con un carácter y una trayectoria diferentes, y a su vez con itinerarios compatibles y complementarios; y desde las diferencias, vamos a poner lo mejor de nosotras mismas sobre la mesa para poner en marcha un nuevo proyecto político para nuestro valle. Queremos aprovechar el valor de la diversidad para llevar a la práctica otro modelo de hacer política local.

Dejando las siglas en un segundo plano, vamos a hacer viable la gobernabilidad y la estabilidad. Hemos consensuado un acuerdo de gobierno poniendo más curiosidad en las ideas que en las personas o siglas; nos han unido las ideas para llevar a cabo el cambio que la ciudadanía ha puesto de manifiesto en las urnas.

Este acuerdo se basa en dos pilares: la gobernanza compartida y el acuerdo programático.

En cuanto al primero, hemos priorizado garantizar la estabilidad. La alcaldía será tomada por la lista más votada entre ambos. Es decir, Leire Remiro Esnoz será la alcaldesa del Valle de Erro.

Sin embargo, ahora que venimos a cambiar las políticas municipales no creemos en personalismos y el trabajo en equipo será el pilar básico. En ese sentido Nekane Nuño será vicealcaldesa y estas dos personas serán la imagen del cambio.

No estarán solas en este trabajo y la base de estas dos fuerzas políticas participará también en el camino del cambio. Es más, nuestra intención es acercar la población del Valle de Erro a la política más allá del nombre del partido que habéis votado. Todos somos habitantes del Valle de Erro y entre todos y todas dibujaremos el futuro de este valle.

Tenemos muy en cuenta que AIVE ha sido la lista más votada y somos respetuosos con las personas y representantes que han optado por esta fuerza política. El objetivo es crear una agenda común y una cultura de trabajo compartida, creando una organización racional y coherente.

Queremos un ayuntamiento inclusivo, y creemos firmemente que la participación activa de todos y todas las representantes que componen la corporación será beneficiosa para el desarrollo del valle. Las puertas de la participación están abiertas.

El segundo pilar, pero no por ello menos importante, es el Acuerdo Programático. No entendemos la colaboración si no está llena de contenido. Hemos dado los primeros pasos en esta dirección combinando las convergencias que recogíamos en nuestros programas y definiendo las prioridades y objetivos para los

próximos cuatro años. Hemos sentado las bases para un recorrido compartido en cuanto a contenidos se refiere.

- Impulsar un proceso que dé pasos prácticos hacia un ayuntamiento cercano, eficiente y participativo.
- Establecer una relación colaborativa con los concejos del valle.
- Formar parte de la Mesa del Pirineo.
- Incorporar la perspectiva de género en todas nuestras políticas, programas y acciones administrativas, integrándose transversalmente en todas las áreas.
- Abordar los procesos necesarios para avanzar hacia la normalización real del uso del Euskera como lengua viva en nuestro valle y nuestro ayuntamiento.
- Traer al centro de la política la vida de las personas.
- Elaborar un Plan estratégico para nuestro valle que aborde diferentes áreas: turismo, primer sector, infraestructuras, vivienda, desarrollo rural sostenible y patrimonio.

El rumbo es claro, ahora nos toca empezar a recorrer el camino. En este ámbito también queremos contar con vosotras y vosotros, analizando y poniendo en marcha fórmulas de participación ante diferentes proyectos y propuestas.

Abordamos esta nueva legislatura con ganas e ilusión. El primer paso será analizar a fondo la situación actual del Ayuntamiento y hacer una radiografía de la misma. Hay que fijar el punto de partida para empezar a recorrer el camino. Necesitamos saber con claridad cuál es la situación interna del Ayuntamiento para poder dar nuevos pasos.

Hecho esto, queremos dar pasos audaces y contundentes tomando como brújula los objetivos acordados entre ambas fuerzas. El camino no va a ser fácil y sabemos que nos vamos a encontrar con muchos obstáculos. Contamos con vuestra confianza y participación.

Por último, decir que nos comprometemos a poner lo mejor de nuestra parte y a trabajar a fondo para que el desarrollo del Valle se centre en la igualdad, la equidad y la justicia.

¡Las puertas del Ayuntamiento están abiertas para hacer este camino entre todas y todos, conjuntamente!